

- Ez da, ez, zuk uste duzun bezala bizitza. Zu orain niri kontu eske? Nor, zu? Zer gauzak!! To, to, xux! - behatza ezpainen aurrean jarri du, isiltzeko keinua eginez. Betilun begiratu dio semeari. Ez dio, ez, ezer ametituko oraingo honetan -Txintik esan gabe gero! Eser zaitetz nire aurrean, aspaldi hitz egin beharko nizukeen horrela. Zu niri kontu eske, zapuzkeriatan, baldarki, purrustaka... halakorik ere! Ez, seme, ez! Bizitza ez da horrela. Ez gure teilapean zaren bitartean. Ezta... ezta gure teilapetik kanpo zarenan ere, zuk bestelakorik usteagatik!

Aulkia hartu du poliki amak beretzat, mahaiaren alde batean jarri du, eta semeari beste aulki bat jarri dio leunki, mahaiaren bestaldean, biak parez-pare egon daitezten. Bere aurrean eser arazteko agindu dio irmo, behatz puntarekin aulkia erakutsiz. Tonu suabean hitz egin dio: “eseri”. Semeak zalantza izan du, jaramon egin ala gaizki erantzun amari, baina zalantzakor izan ondoren, eseri egin da. Komeni zaiola sumatu du. Ez duela giroa areago lardaskatu nahi. Senak hala agindu dio. Ama eseri da ondoren, mahaia tarteko, parez-pare. Eta ezer esaten uzteke berean jarraitu du andreak.

- Ea, seme, argi dezagun kontu bat, gaur eta betiko. Ez, ez da. Edozeinek esanda ere. Ezetza da. Kito. Aditu? Ez dago erdibiderik. Nik uste nuen, nik ulertu nuen, begiradarekin bestelakorik esan dit, bere gorputzaren dardarek aurkakoa transmititu didate... baina zer lerdokeria petralak.

Semea harri eta zur ari zaio amari begira, bekainak gora, ez du burua makurtu oraindik. Ez daki haserre, suminduta ala minduta begiratu amari. Sinesgaitz da. Haren begiradari eusten ari zaio, iraunean, lepoa eta sorbaldak tente oraindik. Lotsaraztea lortuko du azkenean, baina ez gertatu denagatik, bera ume moko gisa tratatzeagatik baizik. Ahoa zabaldu nahi izan du, baina amak, aurrea hartu dio trebeki: semeak mezua ondo barnera dezan nahi du. Gaur ez da epelkerietan ibiliko. Haien haurra den gazteari tinko hitz egin nahi dio.

- Zer esan dizu ahoz gora... ezetz, ezta? Ez zuela zure musurik nahi, uzteko bakean, ez zuela zure besarkadarik nahi, ezta?

Semeak buruarekin imintzio batzuk egin ditu, behingoz ardua aurpegiarekin begiratzeko hasi zaio amari. Hitz egiteko keinua egin du, baina ama aurreratu zaio berriz.

- Eee! Te,te, te...ez dut amaitu, hasi besterik ez naiz egin. Bai, hori dena esan dizu eta halere zuk, aurrera, jolasa balitz bezala, berokitik tira egin diozu, zuregana indarrez erakarri duzu, beso artean ez mugitzeko adina estutuz itxitu duzu eta algaren artean muxu eman.

- Ez da horrela izan, ama!!!.... - saiatu da semea. Alferrik. Amari lasai asko eta ondoriorik izango ez zuelakoan kontatu diona eta orain ama karikaturizatzen ari den egoera, agian, nahiko bat datoz, baina ez du onartu nahi semeak.

Eta beste bati gertakizuna nola izan den entzutea gogorra egiten ari zaio.

“Utzi egin dit, utzi egin dit...” sinestarazi nahi izan dio gazteak bere buruari, “bestela, argiago jakinaraziko zidan ez zuela nahi”. Baina hori pentsatu eta berehala, eskua eramane du kokotsera eta masailera. Igurtzi egin ditu, minbera baititu. Bete-beteen asmatu du Jukek masailekoa. Zer esanik ez ukabilkada. “Beno, agian, nahiko argi utzi dit ez zuela nahi, a zer zaplaztekoa eta ukabilkada jaso ditudan. Ummm. Egia esan, bazen garaia neska batek horrela erantzutekoa”, pentsatu du hurrena.

Semeak irribarre txiki bat egin du.

- Nola? Barrez orain? - harrapatu du amak.

- Ez, ez, ama, ez naiz barrez ari, eske...

- eta orain eskean? - amaren begirada zorrotzak ikaratu egin du gaztea. Ez zuen horrelako hizketaldirik espero etxera iritsitakoan. Ezta hurrik eman ere! Otsoaren kobazulo ilunean sartzea zer izango ote zen galdetu izan dio bere buruari noiz edo noiz. Orain badaki: sentitzen ari dena sentitzea, norbaiten atzaparretatik atera ezina, horra.

- Barkatu, ama.

- Bai, hobe duzu.

Ez dio begirada kentzen semeari amak. Itxoin egin du pixka bat jarraitu aurretik.

- Bere hitza, bere erabakia, bere askatasuna...dena ukatu diozu berehalako batean eta gero matrailekoa jaso duzulako niri kexu? Gainera harroxko kontatu didazu ba! “Joko bat zen” -amak

semearen ahotsa antzeztu du-. “Baina zer joko eta zer joko-erdi, seme. Hor ez da txantxarrik egon! Hor begirunea ukatu diozu! Ez diozu entzun!”.

Amaren aurrean harrapatua nabari du bere burua, bere atzaparretan ehizatua. Beno, ez da hala, baina egindakoaren ondorioa eta erantzukizuna zama bilakatzen ari zaizkio. Eta hori du amak helmuga: erantzukizuna. Oker egindakoaz jabetzea. Eta damua, iristen bada.

Arnas sakon egin du gazteak. Matrailekoaren kolpea, kokotsa eta betarteko koskorra min ematen ari zaizkio. Eta mina gutxi ez balitz, betarteko koskorra handitzen ari zaio. Nola egin du ba koskorreko hori? A bai. Jukek askatzeko ahaleginean bultzatu egin du eta berak irrist, kopetarekin eskaileretako barandaren eskutokia jo du zeharka. Hura bai zori makala.

Buruarekin ezetz egin du.

- Ez dela horrela izan diozu? - erreakzionatu du amak.

- Ez, ez, ez da hori ama... - eta berriz ere buruarekin ezetz egin du. Ez du apropos egin, baina kostatzen ari zaio errieta horren hartzaile bakarra izatea. Ez du inoiz haserre-errietarik jaso, egiari zor, eta hura amaigabea iruditzen ari zaio.

Amak berean darrai, ez du gertaera hura txikikeriatzat hartu nahi.

- Zer da ba? Nola izan da, ba? Ea, esadazu zure trebetasun eta hitz jario ederrarekin liluratu duzula eta maitemindu egin duzula... eta maitemin muxua izan dela, berak bere kabuz emandakoa... ez, ezta? A, ez, noski, hitz leun eta sentituak esan dizkiozu eta elkar berotu zarete eta muxua etorri da? A, horrela ere ez? Nola ba...?

Geldialdi teknikoa egin du amak. Aukerarik txikiena ere ez dio emango oraingoz.

- A i, noski, jakin mina izan da. Esperimentazioa. Ikasketa eta ezagutza. Umm. Askatasuna kentzea zer den esperimentatu nahi izan duzu, begirunea hankapetzea, zure balentria norainokoa den erakustea... ea, mutiko...

- Ama, nahikoa da! - ernegatu egin du mutiko deitu izanak eta amaren ironiak. Ez du hitz zorrotz zurrusta hori merezi.

- Nahikoa dela diozu? -amak hitzak banan-bana ahoskatu ditu, mantso-mantso hitz egin du- Eta zuk entzun al diozu Juki nahikoa dela esan duenean? Bakean uzteko esan dizunean? Gaietik kentzen saiatu denean? - arnas hartu du amak - Ez! Ez naiz esajeratzen ari, zu ari zatzaizkio gertatu denari graduak jaisten. Zu ari zatzaizkio zuk egindakoari garrantzia kentzen. Zure aurpegian ari naiz irakurtzen hori bera. Eta ez! Ez natzaizu orain errukituko. Horrela hezi al zaitugu? - ez dio ahotsa igo, serio esan du dena, baina astiro, hitzen pisuaz ohartzeko.

“Iraitz, geldi” jauzi egin dio bere senak amari, “Ikerrek, ulertu du zure mezua eta baita zure haserrea ere”. Isilik gelditu da ama, bere senari erreparatutakoan.

“Ama, nahikoa duzu! NAHIKOOAAA!” ari zaio barrua deiadarka semeari aldi berean. Deiadarra zintzurrean estutu du gazteak, ez dio leku egin. Lehertu egin zaio barruan, aldiz, eta su goritan utzi dio gorputza. Amak nabaritu du semearen haserre beroa. Badaki horri nola aurre egin. Eta giroa bideratu behar du. Egin duena larria izan dela jabetzea du helmuga amak. Eta haserre beroa ez da irakasle ona izango.

Amak galdera bakarra egin nahiko lioke Ikerri, “Jukek nahi al zuen, zuk uste?”.

Isilik gelditu dira biak.

Krisketa hotsa, aita etxeko atea irekitzen ari da. Atea zabaldutakoan ama-semeak ikusi ditu mahaiaren alde banatan parez-pare eserita. Harritu egin da. Biltzar serioa dute antza. Amak ez dio begiratu ere egin, semeak bai, ardi galdu batek artzainari bezala begiratu dio laguntza eske. Aitak ez dio jaramon egin begirada horri, horren ordeztu aulkia hartu eta amaren alboan eseri da isilik, semearen parean bera ere. Ez du inoiz horrelakorik ikusi eta etxetik kanpo eguna bordatik behera botatzekoa bezain zaputza izan bada ere, etxe barruan bere egitekoa guraso lana egitea dela ulertu du, amaren maila berean. Ez daki zein den arazoa, berehala jabetuko da, halere.

Semeari begiratu dio: masailean izugarritzko zaplazteko marka duela erreparatu du aitak, kokotsean ubeldura argia. Koskorra ere baduela dirudi betartean. Jo egin ote dute seme babesgabea? “Joder eskolako bulina, kaka zaharra!” pentsatu du aitak bat batean. Amorratu egin da hitzik entzuteke, ezer jakiteke: gauza bat edo beste argitu nahiko luke orduantxe bertan eskolako irakasle

eta zuzendaritzarekin. Zergatik uzten ote dituzte gazte bare eta otzanak haien kasa, babesik gabe? Eta zergatik uzten ote dituzte borroka eta sesio zaleak salatu gabe? “Seme gixagaixoa, hau ere hiri tokatu behar”.

Aita iritsi dela eta, ama-semblearen arteko giroa baretu egin da. Eskerrak. Amak denbora behar du hausnartzeko. “Ura?” galdetu die bi gizonei amak, biek ezetz esan dute buruarekin. Bera jaiki da eta pitxarra bete ur ekarri du erretiluan, eta hiru edontzi. Kontrola berreskuratzeko erritmoa pausatu nahi izan du. Edontzian isuri du ura amak beretzat eta zurruta eman dio. Amak zer dioen belarria erne jarri du senarrak. Ea zer gertatu den, eta nola izan den, jakiterik duen.

- Iker, berak nahi al zuen? - apalki galdetu dio.

Ikerrek ez du erantzun. “Zertaz ari dira?” aitak bere buruari galdera. Soseguz hitz egin du amak ondoren.

- Zu gailendu zatzaizkio doilorki bere nahiaren aurka, baina hor ez dago ez balentriarik, ez gizontasunik. Hor indarkeria hutsala dago. Zer irabazi duzu Juken askatasuna zanpatzean? Kariño gabeko sasi-muxu bat? -erantzunik gabeko galderak biak, amak jarraitu du- Egia esan, balentria erakutsi nahi bazenite jendeari, nahikoa izango zenuketen zuen, mutilen artean musuka jartzea jolas-garaian - Ikerrek begiak ziplo ireki ditu- bai, ondo esan dut esan nahi nuena, Iker, zuen mutilen artean musuka jolas-orduan, eta are gehiago!!! ... hobe zenuten denek ikasgai denetan bikain ateratzea.

Hasperen egin du Ikerrek. Akaso, bai, merezi zuen erretolika hura.

- Berak ez zuen nahi, ama -erantzun du ahots dardaratsuz.

- Behartu egin duzu berak ezezkoa esanagatik... - amak lasai.

Semeak begiak zabal-zabal ireki eta buruarekin baietz egin dio amari, eta gero ezetz, “ez, ez zuen nahi” xuxurlatuz.

Aitari bihotzak jauzi egin dio ezustean. Ez zuen hau espero gero! Semeak? Zer egin du ba, semeak? Semea ote da gaur irakasleek eta zuzendaritzakoek salatu beharko luketena? Eskolako oies gaitzesgarria? Nor da Juk? Baina zer egin du etxeko mutiko honek? Noski, jada ez da mutikoa,

gizona da. Kariño gabeko sasi-muxua, behartua eman duena. Juki. Ez da ez gozoa entzuten ari dena. Ideiak lotzen hasi da aita.

Aitari begiratu dio Ikerrek. Aitak ez dio begirada horri begirada hotz batekin besterik erantzun. Nahiago du itxoin. Entzun. Eta amarekin dagoela erakutsi.

- Lagunen aurrean “batek-daki-nor-naiz”ela edo “batek-daki-zer-egiteko-gai-naiz”ela erakutsi nahi izan duzulako izan da. Ezta, hala?- amak erro-muinera heldu nahi du.

Hitz totalka hitz egin du gazteak, dardarka.

- Bai. Apustua egin didate. Zirikatu egin naute eta nik onartu.

- Zein den doilorragoa erakusteko apustua – gehitu du amak ahots baxuan.

Ezpainak okertu ditu semeak. Ez du ezer gehitzerik. Ez du ezer kentzerik.

- Baina, seme, ez ezazu zure izaera aldatu besteen apustu zekenengatik -sartu da aita-, zu arazotan ikusi nahi zaituzte. Bekaitzak dira. Arazoak badakartza bizitzak berak guk hari ekartzeko eskatu behar gabe ere. Eta... emakume batek ,“bai”, nahi duela esan arte, zuk ez inoiz aurrea hartu.

Badakizu etxe honetan esan izan duguna, begirunea: begi unea. Begietara begira iezaiozu beti.

Begietara ezin badiezaiokezu begiratu, utzi, une okerra izango baita. Eta hor irakurri, ikusi, galdetu, denbora galdu... hor galdutako denbora irabazitako denbora baita. - Arnasa hartu du; bihotzetik ari zaio hizketan semeari, espontaneoki, erraietatik dakarren zerbaitek bultzatua.- Baietza ikustea eta sentitzea argia da. Baietza lortzea da zaila eta hortxe datza zailtasuna, eta...-hitzok borobildu nahian, azken hitzaren bila dabil – eta... xarma, besteak ere zurekin nahi izatea.

Hirurak nor bere oinetakoei begira jarri dira.

Nor bere burutazioetan ari da lanean. Nor bere emozioetan tiobiboan.

Ikerrek negar egin nahi du, baina ez datorkio malkorik. Ez du egindakoaren sakontasuna bereganatzen oraindik, baina oker egin duela sumatu du; jakin, badaki. Jolasak itsutu du, Jukentzat ez da jolasik egon, ordea. Jolasak baino, lagun xaxatzeak, nor baino nor erakutsi beharrak, beste pertsona baten kontu. Hori egiteko zeren beharra ote zuen datorkio burura behin eta berriz. Baina

amak ez bazuen horren minduta erreazionatu, berak erreparatuko ote zuen egindakoa? Ez, ziur aski.

Amak, ordu arte inoiz ez bezala, etxean zigorra jarri behar duela argi antzeman du. Ikasgai gisa zerbait sentitu behar du semeak, bestela, haserrea pasa eta egin duenaren okerra, eta okerraren larritasuna, ez du bere egingo. Musu bat ez da hautsak harrotzeko modukoa, hori hala da, baina behartuta eta besteak ezetz eskatuta ematea ba bai. Senarrari begiratu dio bekainak igoz. Senarrak buruarekin baietz egin dio, berarekin dela, datorrena betor.

Patxadaz hitz egin du amak. Badaki semea nahigabetuko duela esango dionarekin.

- Hona egingo duguna, Iker: zure gela laranjaz margotuko dugu -senarrari kortesiazko begirada bota dio. Aitak ontzat eman du.

Semea asaldatu egin da.

- Noooola? Baina, ama!! Ezets esan nizuen! Baina, aita! Hitz eman zenidaten!

Gurasoek haserrea entzun dute, zirkinik egiteke. Ikerrek, ezin du sinistu. Hitza eman zioten.

- Ez, ez!! Laranjaz, ez, mesedez – erregutu die. - Ezingo dut kolore horrekin lo hartu.

- Lotarako argia itzaltzen duzuela jakinik, ez dizu enbarazu egingo – esan dio amak lasaikiro – eta osaba-aitona agurtzera joango zara hurrengo lau asteburuetan.

- Ez, osaba-aitona erretxina ez, arren.

Ikerrek, gurasoak serio ari direla ulertu du kexen ondoren eta negar isilean hasi da. Pasilloan barrena zurrumurrua etorri zaie. Bekainak igurtzi ditu amak. “Ea, zuek, zeletan zaudeten horiek, itxi atea oraintxe bertan” agindu die beste biek entzuteko moduan. Ate bat ixten entzun dute, emeki. Amak jangelakoa itxi du. Ikerren begi-niniak gorrituak daude. Ez du ihesbiderik. Gurasoen erabakia irmoa da eta ez dute negar-malkoekin edo mainekin amore emango.

- Gaur Jukek ezetz esan dizu, Iker, eta ez behin edo birritan, hainbat aldiz baizik eta ez dakit zer burutazio edo gixonkeriak jo zaituen, baina gaurko ekintza horrek berari luzerako eragin liezaioke. Ez du gau samurra izango. Zuk ere ez, gela aldatuko dizugulako laster. Eta eskatutakoa betetzen ez denean, zapuzkeria gogorra da. Guk gure hitza ez dugu beteko, zuk eskatuagatik...

- Gaur nik Jukekin egin dudanaren pareko.

Arnas hartu du amak, aitak ere bai. Semeak ez du hitz egiteko adorerik, barrena zein kanpoaldea, malkoz lehertuta ditu.

- Gaur ezin zaituztet asko maite, badakizue, ezta?. Gelara joan naiteke? - galdetu du lurrera begira, erdi zotinka.

- Bai, zoaz – esan diote aita-amek – eta saiatu atsedean hartzen – erantsi dio aitak - bihar jarraituko dugu- amak.

Eta Iker bere gelara abiatu da.

Jangelako atea itxita hizketan ari dira gurasoak. Ikerrek Juki agertu behar dio oker jokatu duela. Ez zuela errespetatu eta hori ez zela zuzena izan.

- Gorka, nola eska diezaioke barkamena Juki? Berari bakarrik? Gurasoen aurrean?

- Iraitz, lagun talde horretan gustuko ez dudan zerbait darabilte. Agian, ez die bestei horrenbeste eragiten, baina Ikerri bai -Gorkak pentsakor jarraitu du – Juki berari eskatu behar dio barkamena, baina bere lagun taldearen aurrean, denak izan daitezten barkamen eskaeraren lekuko. Ondorioak izango ditu... martirioa izango da Ikerrentzat, Iraitz. Irrigarri norbait gelditzekotan, Iker bera geldituko da.

- Bai, eta agian, betiko gutxietsia, isekatua... eta lagunik gabe – gehitu du amak - Eta Juk etxera eskola ondoren batean gonbidatzeko esango bagenio? Gure aurrean oker egin zuela esan diezaioke eta ez dela berriz gertatuko. Ummm... etxera etortzea presioa eranstea izan litekeela uste dut orain pentsatzen jarrita.

- Iraitz, atsedean har dezagun eta ea burkoak ideia berriak ematen dizkigun. Bihar, hotzean, ea zer burutazio dugun.

Aita-amek ondo lokartu zuten, Ikerrek, berriz, erbi-lo egin zuen. Lagunen esanetara zegoela bihozkadak jo zuen eta gau osoan itzuli-mitzuli izan zen maindirepean. Lagunak izan nahi zituen, baina ez haien mendeko izan. Juki entzutea izango zatekeen egin zezakeen gutxiena eta ez zuen egin. Hura gau nahasia, agudo pasako ote zen...

- Aita-ama, beste lagun batzuk merezi ditut, baina zuen laguntza behar dut honetarako. Lagunak uztean eskolan bakar-bakarrik geldituko bainaiz. Ikasturte erdian ikastetxez alda ninteke? Beste norabait transferitua izan?

Kontrako eztarrira joan zitzaien aitari kafesnea. Amak bere garondoa igurtzi zuen, esnatzeko. Bezperako seme berbera al zen?

- Lagunen aurren baldar arlotea izan nintzela esatera noa eta ea Juk inguruan dagoen, barkamena eskatu nahi baitiot.

- Lagunen aurrean? - aurreratu zitzaien aita.

- Ba ez nuen horrela pentsatu, aita. Baina orain zerorrek diozula, hala egin beharko nuke, haien aurrean gizonki agertu. Nire nortasunean. Juken aurrean zintzo. Eta nire buruaren aurrean erantzule. Ez dakit. Ez dut ia ezer argi nabari, baina ez dut berriz ere atzoko mutila izan nahi. Probetxuzko pertsona izan nahi dut, begirunea barreiatzen duena. Atzo bezala aritzeak ez dit onik eragingo.

Nahiago dut beste erronka batzuk dituzten neska-mutilekin nahastu, ama, zuk esan bezala, den-dena bikain ateratzen dutenekin edota eskolara gona eta sujetadorean jantzita doazen mutilekin – gurasoek harrিতa begiratu zioten- ez, ez da horrelakorik inoiz gertatu, baina zorakeriaren bat bota nahi nuen eta hori otu zait orain bat-batean. Hitz batean, nire barruan ez naiz horrelakoa. Eta ez dut kinkia izaten amaitu nahi. Neska edo mutil izan, nirea da nola hurreratu erantzukizuna, eta ezin diot neska bati berriz ere horrelako itsusikeriarik egin, beno, edota mutil bati ere ez. Ba hori.

- Ba hori – errepikatu zuten kafesnea eta ur basoa eskutan gurasoek, sinesgaitz eta harro. Ezin izan zuten “zurekin gaituzu” edo halakorik erantsi, horren zur eta lur zeuden!

Gauean erreakzionatu zuten gurasoek, Ikerrek gertatutakoa kontatzean. Dena gaizki joan zela azaldu zien -erabat minduta zegoen, keinu itsusiak egin ondoren lagunak bizkar eman ziotelako- baina Juken eskerrik asko bihozkoia ere jaso zuela aitortu zien. Eguna bakar-bakarrik eta begirada gaiztoekin pasa zuela eta horregatik... sekula pentsatuko ez zukeena egin zuela, eskolako abesbatzan eman zuela izena, hor jende gehiago zegoelako eta aterpe bila sartu zela. Abesteak, behintzat, bihotzeko mina arintzen ziola.

- Ama, aita. Juk dago abesbatzan eta... etxera gonbidatu dut, bihar etorriko dela esan dit. Etor liteke, ezta?

- Nola ez ba! - erantzun zion amak – eta aurkez iezaguzu.

- Iker, maite zaitugu – jarraitu zuen aitak.

Iraitz eta Gorkak, besarkada beroan estutu zuten semea. “Etxean, beti duzu jendea zain”, esan zioten, “baita Jokin eta Larraitz ere, anai-arrebak”. Ikerrek besarkada onartu zuen, gogoz. Eta askatutakoan, bihotz errea sortzen ari zitzaien galdera ahoratu zuen.

- Gela laranja dugu Jokin eta biok? - itxaropentsu eta ozen galdetu zuen, gurasoek, agian, ez zuten mehatxua gauzatu eta– ez naiz oraindik gelan sartu zer ikusiko kezkatuta... atsekabetuta nagoelako! Eskolatik etorri naizenetik hemen naiz, jangelan – Ahots tonua aldatu zuen – Beno, beldurtuta nago, horregatik ez naiz gelara joan oraindik, zer ikusiko beldurtuta.

Buruarekin baietz egin zioten gurasoek. “Buf!” hasperen nostalgikoa minbera egin zuen Ikerrek, “diskoteka bat izango da orain gure gela”. “Ez, egunsentia da!” erantzun zion Jokinek pozez zorutzen. “Buf! Hau ere behar nuen!” egin zuen marmar eta bigarrenez hasperen Ikerrek.

- Aita, ama, zuek asko maite nauzue, baina nik gaur zuek biak ez horrenbeste, egun osoan zehar “egun nabarra” izatea gelan ez da ba sana izango – bota zuen ironikoki eta arranguraz – eta beti bizitza sana izan behar dugula eta hau eta beste... - marmarka alde egin zuen gelara, oinak arrastaka, zapatak txinalka. Jangelako atea itxi zuen bere atzean.

- Gorka, ez dut sinesten gertatutakoa. Entzun al duzu zer esan duen! - begiak irekita hitz egin zion senarrari – Atzoko semea eta gaurkoa pertsona bera ote da? - senarrak ez zion erantzun behar izan, ildo berean zen bera ere – Gela berriz ere lehengora itzuli beharko dugu.

- Bai, ahalik eta azkarren - berretsi zion gizonak – a zer ganora erakutsi digun.

Iraitz senarrarengana gerturatu zen eta besoak bizkarraldean jarri eta burua sorbaldan utzi zuen. Gorkak bere besoetan hartu zuen Iraitz. “Zenbat lan” bota zuen Iraitzek, “eta zenbat poz” Gorkak bukatu. “Horrelako lana hartzen ote dute etxe guztietan?” xuxurlatu zuen Iraitzek. Galdera airean utzi nahiago izan zuen gizonak, eta besarkada luzatu.